



Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar
zainduz
Lezo

2024PE090004

IRAGARKIA

Administrazio Orokorreko Teknikari 2 plaza (Lehiaketa - oposaketa) Destino aukeraketa

2025 abenduaren 17an lehiaketa oposaketa bidezko 2 Administrazio orokorreko teknikariren oposaketa-lehiaketaren bidezko hautaketa prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratu direla ikusirik eta lehenengo bi hautagaiak, Maialen Lopez Iñarra eta Aroia Altuna Ibarguren Lezoko Udaleko Administrazio orokorreko teknikari 2 plaza funtzionario gisa betetzeko proposatu direnez, Lezoko udaleko Zinegotzi delegatuak, (2023-06-27ko D23/0827 dekretuan alkateak emandako delegazioen baitan) D25/1414 ebazpenaren bidez, hau ERABAKI du:

BAT.- Administrazio orokorreko teknikari 2 plaza betetzeko oposaketa-lehiaketaren bidezko hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzailearen 2025 abenduaren 17ko proposamenaren baitan lehenengo bi hautagaiek destinoa aukeratzeko prozedura hastea eta 3 egun balioduneko epea ematea bi plazei (Administrazio Orokorreko eskalako, AOT eta A1 taldea) atxikiko zaizkien lanpostuen artean aukeratzeko:

Lanpostuak:

- Administrazio orokorreko teknikaria (Lanpostuen zerrendako 101 kodea)
- Barne antolaketa eta pertsonaleko arduraduna (Lanpostuen zerrendan 105 kodea).

Destino osagarria: 22

Berariazko osagarria: 18.083 euro

Euskararen hizkuntza-eskakizuna: 4 . Derrigortasun data: LZ agertzen direnak

Adierazitako diru-kopuruak onartutako azken lanpostu- zerrendan jasotakoak dira, geroago onartutako ordainsari- igoerei kalterik egin gabe.

Destino aukeraketa epea, abenduaren 18tik 22ra izango da (biak barne).

Destinoa aukeratzeko prozeduran parte hartzera deitutako pertsonak lanpostu zerrenda bakarra egingo dute, eta, bertan, beren lehentasunen arabera, eskainitako plazei lotutako lanpostuak ordenatuko dituzte.

Aukeraketa, idatziz, udal sarrera erregistroan aurkeztu behar da bai bertara etorrira bai internet bidez Lezoko Udaleko web orriko, (www.lezo.eus), egoitza elektronikotik, l. eranskineko inprimakia aurkeztuaz.

Hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte garaiz eta moduan destinoa aukeratzeko ez dutenak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

BI.- Destinoa, hautaketa prozesuko behin betiko kalifikazioen hurrenkeraren arabera esleituko da.

HIRU.- Ebazpen hau jendaurrean jartzea, eta, kualifikaziorik gabeko izapide egintza dela adieraztea; beraz, haren aurka ezin da inolako administrazio errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozeduran ematen den behin betiko ebazpenaren aurka jartzen diren errekursoak.

Iragarkia, 2025ko abenduaren 17ean jarri dela ziurtatzen da

Sinatzailea Zinegotzi delegatua, Eneritz Arruti Osanbela

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: <https://munigex.net/r/0/53/AAAATXBZV.P7Yo>



Lezoko Unibertsitateko Udala



2024PE090004

I ERANSKINA

ESKAINITAKO LANPOSTUEN LEHENTASUN HURRENKERA

Nik,.....

.....,NAN duenak , **Administrazio orokorreko teknikari** deialdian eskaintzen diren lanpostuak esleitzeko, lehentasun hurrenkera adierazten dut (1 eta 2):

Hurrenkera	Lanpostua
	Administrazio orokorreko teknikaria (Lanpostuen zerrendako 101 zk)
	Barne antolaketa eta pertsonaleko arduraduna (Lanpostuen zerrendan 105 zk).